

Grooming

Manipulazio psikologikoan oinarritutako prozesua da, heldu batek haur edo nerabe bati egiten diona. Helburua adin txikikoaren kontrol emozionala lortzea da helduaren helburua sexualak lortzeko.

Haurrekin eta nerabeekin **aler**ta **seinaleei** buruz hitz egin, eta antzematerakoan:

- Komunikazioa eten
- Heldu bati abisatu
- Elkarrizketak ez borratu
- Frogak ez ezabatu
- Komisaldagian salaketa jarri

Prozesuaren faseak eta **aler**ta-**seinaleak**

Beti ez dira fase guztiak edo orden berdinean ematen

1. BILAKETA, KONTAKTUA

Haien kontuetan informazio pertsonala duten (argazkiak, bideoak, informazio pertsonala) haur eta nerabeen bilaketa. Kontaktua egiten dute elkarrizketa "adiskidetsu" bat hasteko. Hizkera eta izaera biktima desberdinetara egokitzen dute. Lokalizazio tresnak.




2. LEIALTASUNA

Zaletasunak, non bizi diren... galdetzen diete. Gustu berdinak dituztenaren itxura egiten dute. Informazio pertsonal faltsua kontatzen dute konfidantza irabazteko. **Mezularitza app-en bidez hitz egiten jarraitzea proposatzen dute.**

Familiei buruzko galderak hasten dira, nola eramaten diren, egoera ekonomikoa...

3. ISOLAMENTUA

Gaizkilea **biktima bere familiaratik edo lagunetatik aldentzen saiatzen da**. Horren helburua konfidantzako erreferentzia bakarra izatea da. Aitzaki desberdinak erabiliz, gaizkileak **erlazioa sekretuan mantentzea eskatze du**.



4. SEDUKZIOA

Gaizkilea biktima gehiago erakartzen hasten da **etengabeko lausenguen bidez. Opariak ematen dizkio, batzuetan dirua ere**. Horrek biktimarengan pederastarekiko zor-sentimendua sortzen du eta heroi gisa idealizatzea laguntzen du.



5. JAZARPENA

Sexu jazarpena hasten da. Etengabe **argazkiak, bideoak edo topaketak eskatzen ditu**. Delitugilea, den bezela agertzen da eta adintxikikoa intimidatzen du. Biktimak uko egiten badio, estortsioa edo senideak kaltetzeko mehatzuak hasten dira.

